

Iñaki Murua

Urrutiko sagarrak hamalau...

B

azen, ez aspaldi, urtero sagar uzta oparoa jasotzen zuen jaun bat. Egundoko mauka zeukan sagasti hari esker! Bere bezeroak zorioneko ziren zapore, usain eta itxura hain zoragarriko sagar ale bikain haiekin. Sagarren ospea hedatu ahala, gero eta bezero gehiago zuen jaun hark, eta denak ase asmoz, auzotar batek gomendatutako ongarria nahastu zion sagastiko lurrari: tentuz eta xamurki zopizartu aurrena, hondeatu, oxigenatzeko denbora utzi eta ongarria lurrari nahasturik, dena prest utzi zuen.

Uzta bildu orduko konturatu zen Jauna, urte hartan, zerbait bazela ezohikoa bere sagar aleetan. Biltegian xomorroak agertu ziren eta ale ustelak ugaltzen zihoazen. Horregatik, ahalik eta azkarren saldu eta irabaziak ziurtatzea erabaki zuen. Aisa lortu zuen! Puntako prezioan hartu zizkion erostun talde batek.

Erostun berriak ere laster konturatu ziren, itxura aparteko sagar haiek eta inguruko denak usteltzen hasi zirela. Zer egin? Denak pila handian erabat nahasturik zeuden; ezinezkoa zen banaka-banaka banantzea, hainbeste tona...

Ia neuronak eta euronak agortu arte pentsatzen aritu ondoren, urruntxoagoko herrietako sagarrekin batera pilatzea zatekeela hoberena pentsatu zuten, bestela uzta osorik galtzeak egundoko porrota zekarkielako... Baina beste herrietakoekin batzean, orduan eta azkarrago hasi ziren denak usteltzen. Bazirudien xomorroz eta xixarez egindakoak zirela haien barrunbeak...

Irtenbide bila egun dezente gautu eta gero, azkenean, euren sagar pila erraldoia beste estatu bateko patata ekoizleen uztarekin batzea adostu zuten. Sagarra eta lursagarra ongi konpon zitezkeen.

Noski, sagar jabeen artean osaturiko komisio batek egundokoak eta bi egin behar izan zituen patata ekoizle fidakaitz haiek beren nahietara lotu zitezzen. Baina,



DANI BLANCO

azkenean, hain irtenbide ona eta negozio hobea xamurki eta marketin bitarteko modernoenez begien aurrean jarri zieten, liluratuta, aho zabalik, balizko aberastasunaren kitzikadurak sortu lerdea lehortzeko mukizapia eskuetan... Bai! Esan zuten denek batera.

Usteltzeak baina, mugarik gabeko neurriak eta abiadura hartu zituen. Gero eta gehiagok zeukaten ustela eskuartean. Orduan otu zitzairen, bazirela bada euren aldean irabazi apalak baina ziurrak lortzen zituzten ekoizleak eta, gainera, haien produktua, zalantzarik gabe, askoz hobeto babesturik zegoen ustelari aurre egiteko! Geruza geruzaren gainean, kipulak ez zion ustelari zirrikiturik utziko eta han amaituko zen egoera nardagarri hura.

Txalo zaparrada luuuzte batez amaitu zen akordioa; cavarik garestienaz egin zuten topa! Haren aparrak eta lurrinak mendean hartu zuen ipar haizeak kontinentearen beste puntatik zekarren ustel jarioa. Baina, ez zuen askorik iraun berriak. Topak, berehala egin zuen topo, aspalditxoan hain hurbileko zuten kiratsarekin. Oraingoan gainera, gas negar eragile baten efektu bera izan zuen: denak hasi ziren kipula saldustel (saldu nahiz salda ustel) lurrinarekin negarez. Ez zekiten zerk eragiten zien malko jario hura baina, denak ari ziren kontu bera gai eta ardatz zuten harekin elkarrizketa amaiezinetan. Hobeto esan hitz-aspertuetan!

Eta honela, ustel usainak putreak legez, politikoak hurbildu zitzaizkien dena konpontzera... Inork dirua bikoiztu nahi bazuen, mugitzeko, zioen sermoian, bele abadeak ere... Horrelaxe sortu zuten Europako Bankua!

P. S. Olerki amandreak, bat-batean, sehaska kulunken erritmo eta neurritz, ilobak lokartze-ko erditutako ipuina! ■



Irtenbide bila egun dezente gautu
eta gero, azkenean, euren sagar pila
erraldoia beste estatu bateko patata
ekoizleen uztarekin batzea adostu
zuten. Sagarra eta lursagarra
ongi konpon zitezkeen